



**2016KO EKAINAREN 17KO
TOKIKO GOBERNU BATZARRA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hamaseiko ekainaren hamazazpian, arratsaldeko ordu bi eta erdietan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Felix Urkola Iriarte Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratu-tako zinegotziak honako hauek dira: Ane Irastortza Izagirre, Aitor Altuna Oiarbide, Joseba Imanol Aran Barandiaran eta Marian Zufiria Apeztegia.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaraturakoen onespenera aurkezten da 2016ko ekainaren 3an egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

II.- FAKTURAK.-

Ondoren Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertzen dira. Aztertu ondoren 2016ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 46 zbk.dun fakturen zerrenda, bere espedientean dagoena, HIRUROGEITA HIRU MILA BOSTEHUN ETA LAUROGEITA ZORTZI EURO ETA HOGEITA BAT ZENTIMO (63.588,21 €)tako onartzea erabakitzen da.

III.- GIPUZKOAKO EROSKETA ZENTRALAREN BIDEZKO KONTRATAZIOEI ATXIKIPENA.-

Gipuzkoako Erosketa Zentralaren bidezko kontratazioei atxikipena ematearen inguruan, eta atxikitzeko erabakia beranduenera ere, atzoko egunerako jakinarazi beharra zegoenez, alkateak, 2016ko ekainaren 7ko alkatetzaren ebazpen bidez, C gasolioaren hornikuntza kontratazio espedienteari atxikitzea erabaki zuen.

Tokiko Gobernu Batzarra jakinaren gainean gelditzen da.

Beste alde batetik, eta baita ere Gipuzkoako Erosketa Zentralaren bidez izapidetutako kontratazio espedientei atxikipena ematearen inguruan, honako hauek erabakitzen dira:

Gas naturalaren hornikuntzaren kontratazioari atxikipena.-

Gipuzkoako Erosketen Foru Zentralak jakinarazi du, gas naturalaren hornikuntza, esparru akordioaren prozedura bidez kontratatzeko kontratazio espedienteari hasiera ematera doala.

Honen aurrean eta kontuan izanda udal honetako Osoko Bilkurak, 2011ko martxoaren 17an egindako bilkuran, Gipuzkoako Foru kontratazioen zentralari atxikitzeko hitzarmena onartu zuela.

Kontuan izanda baita ere udal honek hornikuntza hau behar duela.



Gaia aztertu ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, zera erabakitzen du:

- 1.- Gipuzkoako Foru Kontratazioen Zentralaren bidez gas naturalaren hornikuntza kontratatzeke hasi duen esparru akordioaren kontratazio espedienteari atxikipena ematea, 2011ko martxoaren 17ko Udal Osoko Bilkurak onartuta atxikitako hitzarmenean ezarritako eran eta baldintzetan, eta 2011ko otsailaren 22ko 2011/3 Foru Dekretuan ezarritako arauetan.
- 2.- Aldundiak esparru akordioa formalizatu ondoren eta hark adierazitako epean, betiere enpresa esleipendunarekin kontratu eratorria izenpetzeko konpromisoa hartzea.

Material elektrikoaren hornikuntzaren kontratazioari atxikipena.-

Gipuzkoako Erosketen Foru Zentralak jakinarazi du, material elektrikoaren hornikuntza, esparru akordioaren prozedura bidez kontratatzeke kontratazio espedienteari hasiera ematera doala,.

Honen aurrean eta kontuan izanda udal honetako Osoko Bilkurak, 2011ko martxoaren 17an egindako bilkuran, Gipuzkoako Foru kontratazioen zentralari atxikitzeke hitzarmena onartu zuela.

Kontuan izanda baita ere udal honek hornikuntza hau behar duela.

Gaia aztertu ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, zera erabakitzen du:

- 1.- Gipuzkoako Foru Kontratazioen Zentralaren material elektrikoaren hornikuntza kontratatzeke hasi duen esparru akordioaren kontratazio espedienteari atxikipena ematea, 2011ko martxoaren 17ko Udal Osoko Bilkurak onartuta atxikitako hitzarmenean ezarritako eran eta baldintzetan, eta 2011ko otsailaren 22ko 2011/3 Foru Dekretuan ezarritako arauetan.
- 2.- Aldundiak esparru akordioa formalizatu ondoren eta hark adierazitako epean, betiere enpresa esleipendunarekin kontratu eratorria izenpetzeko konpromisoa hartzea.

IV.- ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUKO KONTRATUAREN LUZAPENA.-

Gizarte Zerbitzuetako Batzordetik CLECE S.A. enpresarekin etxeke laguntza zerbitzua emateko dagoen kontratua beste urte betez luzatzea proposatzen da. Luzapena 2016ko irailaren 16tik 2017ko irailaren 15era bitartekoa izango da.

Tokiko Gobernu Batzarrak, gaia aztertu ondoren kontratu luzapen hau onartzea erabakitzen du.

V.- GIZARTE ZERBITZUETAKO LAGUNTZAK.-

Gizarte Zerbitzuetako Batzordeak aurkeztutako proposamenak aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hauek hartzen ditu:

Etxeko Laguntza Zerbitzua.-



- 16-11-01 zbk.dun esped.: zerbitzua handitzea 2016ko maiatzaren 12tik aurrera, egunean bi ordu eta erditik 3 ordura, astelehenetik ostiralera, onuradunak laguntza gehiago behar duelako. Onuradunaren ekarpena zerbitzu kostuaren %15a izango da.
- 16-11-06 zbk.dun esped.: zerbitzuan baja ematea 2016ko maiatzaren 31n, onuradunaren heriotzagatik.

Gizarte Larrialdietarako laguntzak.-

- 692 zbk.dun esped.: etxebizitzaren mantenimendu eta alokairu gastuetarako laguntzatik baja ematea, ekaineko hilabetetik, udalerrri aldaketagatik.
- 15-01-016 zbk.dun esped.: etxebizitzaren alokairu eta mantenimenduko gastuetarako laguntzatik baja ematea maiatzeko hilabetetik, bizileku aldaketagatik.
- 15-01-011 zbk.dun esped.: alokairu eta mantenimendu gastuetarako suspendituta zeukan laguntza alta ematea, maiatzetik. Alokairu gastuetarako hilean 125 € ematea maiatzetik abendura eta mantenimendu gastuetarako hilean 46,25 € ematea maiatzetik abendura. Ematen zaiaona eskatutakoaren %100a da.
- 16-01-005 zbk.dun esped.: etxebizitzaren mantenimenduko gastuetarako hilean 92,5 €ko diru laguntza ematea, maiatzetik abendura. Ematen zaiaona eskatutakoaren %100 da.
- 16-01-006 zbk.dun esped.: etxebizitzaren mantenimenduko gastuetarako hilean 83,25 €ko diru laguntza ematea, maiatzetik irailera eta alokairuko gastuetarako hilean 175,00 €ko diru laguntza ematea, maiatzetik irailera. Ematen zaiaona eskatutakoaren %100 da.

Orobione jubilatu eta pentsiodunen elkartea.-

2016ko urterako izendatutako diru laguntzaren erdia, orain ematea, honako konzeptuengatik:

• Urteko ekintzen garapenerako	3.220,00 €
• Oinarrizko egituren funtzionamendurako	1.250,00 €
Guztira	4.470,00 €

Lazkaoko gazte laguntzaileentzako beka.-

Jessica Cantero Pintori, N.A. zbkia. 44.333.552-V, mila eta berrogeita hemeretzi euro eta hirurogeita hemezortzi zentimo (1.059,78 €)ko diru laguntza onartzea. Orain zenbateko honen erdia ordainduko zaio, hau da, bostehun eta hogeita bederatzi euro eta laurogeita bederatzi zentimo (529,89 €) eta beste erdia, egindako gastuak zurrizten dituenetan.

VI.- EUSKARAKO DIRULAGUNTZAK .-

Euskara Batzordeak aurkeztutako proposamenaren aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, Goierriko Euskal Eskola Kultur Elkarteari, Mintzalagun programaren garapenagatik eta urtariletik ekainera bitartean burututako jarduerengatik, bost mila eta bostehun (5.500 €) euroko diru laguntza ematea erabakitzen du.



Eguneko gai zerrendatik kanpo eta gaiei buruz eztabaidatzea guztiek ontzat eman ondoren, honako hauek hitzegiten dira:

Aurreko Tokiko Gobernu Batzarrean, Maitane Fernandez Angulori 900 € ordaintzea erabaki zen, San Prudentzio jaien barruan antolatutako ginkana zela eta.

Ordaindu beharrekoa ez zen 900 € baizik eta 990 €. Hau honela orain falta diren 90 €ak ordaintzea erabakitzen da.

Eta beste alde batetik eta San Juan Txiki auzoko festak antolatzeko Joxe Ramon Sala Elizondori 500 € ematea erabakitzen da.

VII.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, arratsaldeko hirurak direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

